

# Nafarkaria

Egunkaria

Ostirala, 1996ko ekainaren 28a

\*



1922. urteko abenduan hil zuten Aldabidia otso mitikoa.

FERNANDO HUALDE

## Otsoa badatorrela!

■ Otsoa badator eta ardiak eta artzainak beldur dira. 1981. urteaz gozotik lehen erasoak gertatu dira gure herrialdean maiatza eta ekaina bitartean. 25 bat ardi hil dira Nafarroan eta beste hainbeste Gipuzkoan, Urbasa, Aralar eta Lerinen izandako erasoetan. Artzainak ziur dira otsoak direla baina Ingurugiro Sailak ez du oraindik

frogarik aurkitu. Bestalde, astelehenean, artzainen haserrearen piztu zuen Hartz Arrea Berreskuratzeko Plana onartu egingo du Nafarroako Gobernuak. Izabak, Erronkariko bailarako gainontzeko herriek ez bezala, plana zehazteko lan batzordeetan parte hartzeari uko egin zion eta hartza desagertutzat jotzeko asmotan dabil. ■

## Ziripot

### Adiskide eroarekin

MIKEL TABERNA



Loretan behar zuen lagun maite bat udaberriak eraman zidan bezala (*ez dut entenitzen nola ez duten paratu debekurik 35 urterekin hiltzeko*, erranen luke Zokik), udaren etorrerarekin batera aspaldiko adixkide bat erreskatatu nuen ahazturaren hatzaparretatik. Hamar urte elkar ikusi gabe (*mila ta zazpiehun mende*: baten ilea zuritzen hasia, bertzearena polliki bakandua. Hitz eman genion elkarri gure telefonoak ez direla hemendik aitzinera *bihotz mortuak* izanen eta kartazal barreneko gure hitzak ez direla buzoietako pornografia komertzialaren itsasoan itoko.

Beroa ere ekarri zuen berekin aro berriak, edozeinen burua nahasterainokoa, eguzkia labeago, eta eskopeta

tiro batzuk aditu genituen, *danba, danba*, eta kulparik batere ez zuen emakume gazte bat hil zutela eman zuten jakitera, Orduan Felliniren *Dolce Vitaz* oroitu ginen, eta nola hartan ere burua nahasixea bide zuen gizajo bat igan egiten zen arbolaren gainera eta handik oihuka hasten zen *andre bat nahi duuuuuuuuuuu!*. Eta pentsatu genuen akaso hemengo tiro egileak ere adixkidea falta izanen zuela (dendari sinpatiko bat, kartetan gustora aritzeko laguna,...) bajna nonbait ez zuela arbola gainera igan eta oihu egiteko balorerik izan.

Nolanahi dela ere, biharamunen ere argitu zuen eguna eta Lankratzek pelukeriatik bueltan maitemindu egin zela aitortu zidan, Felliniren (beriz Fe-

derico hemen) estankeraren alaba suertatu zitziolako kasu egile. Iluntzean, berriz, San Juan bezpera baitzen, tradizioari segitu eta sua prestatu genuen (gure herri tikian Erramu bezperan, *Erramuxahar* egunean, egiten da ordea). Ez genuen zalantza handirik izan: urtebete (urteak?) maxkara jantzita ibili den ile zilarreztatuko *Ziripot* bat, zintzo itxurako gezurtia, lastozkoa, hartu eta su eman genion, *Gabriel Otxin* ihauterietan erre genuen bezala.

Garretan pixkan-pixkan kixkaltzen joan ziren gaitz eta gaiztoen gainetik salto egin genuen gero, gure barreneko zikinak ere garbitzeko, geroa hobe izanen delako (geroan hobeak izanen garelako) esperantzaz. X



**GURE AUKERAK**

**KONTZERTUAK**

**Agoitz:** Expreso de Bohemia taldeak kontzertua eskainiko du bihar, goizaldeko 2.30etan, Arkupe dantzalekuan.

**Orotz-Betelu:** Edelweis taldeak bere emanaldia eskainiko du herrian, goizaldeko ordu bata inguruan.

**Gares:** Los Planetas taldeak kontzertua eskainiko du gaur Funda-Mental aretoan, gaueko 11.00etan. Sarrerak, aurretik erosiz gero, 1.000 pezeta balioko du, 1.200 bestela.

**Aitzoain:** Soul Tellers eta Naco Goñi Artsaia Musik Klubean izanen dira gaur, gaueko 11.00etatik aurrera. Sarrerak 800 pezeta izanen dira salgai.

**ZINEMA**

**Tafalla:** Cinema Españolen Haurrentzako Zinema Zikloa antolatu dute. Bihar *El ladrón de Bagdad* izanen da ikusgai, arratsaldeko 6.00etan, eta etzi arratsaldeko 3.45etan. Sarrerak 100 pezeta balio du.

**ANTZERKIA**

**Castejon:** Amadis de Gaula taldeak *La doncella es peligrosa* obra taularatuko du gaur, arratsaldeko 6.30etan, Kultur Etxean.

**Zizur Nagusia:** Melody Sisters antzerki taldeak *Con lo puesto* lana antzeztuko du gaur, gaueko 10.00etan, Kultur Etxean. Bihar ere ordu berean eta leku berean izanen dira Melody Sisters taldeko aktoreak. Sarrerak 500 pezeta izanen dira salgai.

**ERAKUSKETAK**

**Burlata:** Maria Pilar Frisonek Kultur Etxean zintzilikatu ditu bere koadroak. Erakusketa 19.00etatik 21.00etara dago zabalik asteartetik larunbatera, eta igandean, berriz, goizean.

**Iruñea:** Fernando Beorlegiren lanak Garcia Castañon aretoan ikusgai dira igandera bitartean. Asteleheneetik larunbatera bitartean zabalik da erakusketa, 19.00etatik 21.00etara. Igandean 12.30etatik 14.00etara izanen da zabalik.

**IBILALDIAK**

**Belagoa:** Belagoatik atera eta Panticosara ailegatuko den ibilaldia antolatu du Nafarroa Kirol Elkarteak. Ibilaldia datorren ostegunean abiatuko da eta apirilaren 9an bukatuko da. Parte hartu nahi duenak elkartean egoitzan eman behar du izena. Apirilaren 4tik 9ra Pirinioetatik kostaldera eta Pirinioetatik Bardeetara abiatuko diren beste bi ibilaldi ere antolatu ditu Nafarroa Kirol Elkarteak.

**BESTELAKAOK**

**Iruñea:** Nafarroako Haur Kantari Txapelketako finala egingen dute igandean, goizeko hamaitan, Gaiarre antzokian.

*nafarkronika*

Fermin Erbiti

**Uste baino luzeagoa**

**N**afarroan gehien irakurtzen den egunkariak argi eta garbi erran zuen igandeko editorialean: UPNk etsaia etxean sartu beharrean hobe du gobernu osatu eta Parlamentuan beharko duen laguntza sozialistei eskatzea, horrela askoz lasaiago biziko baita.

Sanzenk prozedura automatikoaren bidez lehendakaritza eta aurrekontu eta legeak onartzeko sozialisten laguntza lortuz gero, UPNk Alliren alderdia oso egoera larrian utziko luke eta sozialistek ere uste baino etekin handiagoak lortuko lituzkete.

Funtziotan dagoen presidentek badaki gobernuan segitu behar duela alderdiaren iraupenerako garantia bakarra delakoan. Mugitzen hasia da, beraz, alde batera eta bertzerira hiru-koitza berpizteko asmoz, laukoitza ere egingen

luke, Lapazaranekin baita Corellakoarekin ere arituko litzateke oposizioa joan baino lehen.

Izan ere, gauza jakina baita oposizioan egoiteak gehiago ahultzen duela alderdia gobernuak baino. IUK duela urtebete «bai, baina ez» erran zuen eta epe laburra behar izan du horretaz konturatzeko. Berdin gertatu zaio EAri. Urteak eta urteak oposizioan, alderdia gero eta ahulago, azkenean gobernura heldu eta goiz batean titular batek lehenagoko egoerara itzularazten du. Entziero eta txorizoen hiri honetan etorkizuna asmatzea oso zaila bada ere, argi dago prozesua hasieran uste baino luzeagoa izanen dela. Eta funtziotan dagoen presidentek hirukoitza edo laukoitza berpizteko ahaleginak eginagatik, itxura guztien arabera bi alderdi nagusiak eskutik helduta ibiliko dira berriro datozen hiru urteetan.



*asteko pertsonaiak*



**Kirio Gaztearena**  
Barraken Batzarreko ordezkarria

ZORTZI egun besterik ez dira falta Iruñeko zeruan txupinazoak eztanda egin dezan, 192 ordu. Zezen usaia atzeman daiteke jada. Entzieroko hesiak jarri dituzte, entzierrillokoak baita ere, haurren barrakak martxan dira, eta Kirio Gaztearenak Barraka Herrikoien jai egitaraua aurkeztu zuen joan den asteartean. Barraken Batzarreko ordezkarriak azaldutakoaren arabera, kontzertuak jaun eta jabe izanen dira horretan barna: Kashbad, SA, Koma... Bestalde, Euskadiko Partidu Komunistak (EPK) ez du aurten barrakarrik jarriko, KASEk batzarrean EPKri eremua uzteko «gonbita» egiteko aukera aipatu zuela dela kausa. Sanferminak hasi bitartean oraindik ere zeresan ugari eman lezake horrek.



**Juan Karlos Etxegoien 'Xamar'**  
Idazlea

JUAN KARLOS ETXEGOIEN izenak inor gutxiri egingen zaio ezaguna. Xamar haren goitizena aipatzen bada, berriz, askok eta askok ezagutuko dute, besteak beste, asko eta asko baitira *Orhipean* haren liburua erosi dutenak, argitaratutako ale guztiak akitu arte. Hain zuzen ere arrakasta horrek bultzatuta, idazle eta marrazkilari aetzak liburuaren gaztelaniazko bertsioa prestatu du azken hilabeteotan zehar. Pamiela argitaletxe iruindarraren eskutik, komunikabideen aitzinean horren aurkezpena egin zuen atzo goizean. Txoko honetatik, gaztelaniazko bertsioa euskarazko jatorrizko bertsioa bezain arrakastatsua izatea opa diogu gehigarri honetako kolaboratzailea den Xamarri.

*ahaztu gabe!*



**GAY ETA LESBIANAK**

**Iruñea:** GAY Harrotasunaren Nazioarteko Eguna ospatuko dute gaur, hilak 28, mundu zabalera marika eta lesbianek. Marika irakurri duzu, bai, eta ez gay edota homosexual; izan ere, hori da abangoardiako homosexualak gaur egun aldarrikatzen ari diren hitza. Besteak beste, horixe azaldu dute EHGAMeko (Euskal Herriko Gay Mugimendua) ki-deek aste honetan zehar egin dituzten hitzaldi, zinema emanaldi eta protesta ekintzetan. Aurrera atera duten egitarau mardulari amaiera emateko, manifestaldia izanen da gaur, ilunabarreko zortzietatik aitzina, Iruñeko Gaztelu plazan. Horren buruan izanen den pankartan *Marika, lesbiana: erakutsi hire gaytasuna. Hazte ver leloa irakurri ahal izanen da. Manifestaldiaren gibeletik, Iruñeko Euskal Jai pilotalekuko gaztetxean eta gaueko hamaitetatik aitzina, ezusteko berriko jaia izanen da. Horra hor armairutik irteteko aukera ezin hobea.*

*adi!*

**Euskalerria Irratia FM 91,4**

Egunero asteleheneetik ostiralera, *Zokobetailu* goizeko 10.00etatik 11.00etara.

**Xorroxin Irratia FM 107,5**

Egunero 20.00etatik 22.00etara *Karakola segi hola* gazteendako saioa.

**Aralar Irratia FM 106,2**

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara, bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuei elkarrizketak.

**Karrape Irratia FM 107,8**

Astean zehar, 12.20etatik 12.35etara *Gauza guztien gainetik*, edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak.



## Lizarra

## Pedro Iturraldek Lizarran joko du

Herriko Udalak antolatu duen Jazz Gaztearen Bosgarren Erakustaldiaren barruan

**P**edro Iturralde Falcesko saxo joleak kontzertua eskainiko du igande honetan Lizarran, bertako Udalak antolatu Jazz Gaztearen Bosgarren Erakustaldian. Aurtengo egitaraua, baina, bihar bertan hasi eta uztailearen 1ean amaituko da. Bertako eta kanpoko musikari eta taldeek topo egiten dute urtero Lizarrako jaialdian. Aurten, gainera, kalea hartuko du jazzak.

Erredakzioa / Iruñea

FALCESko Pedro Iturralde saxo joleak Lizarrako Jazz Gaztearen Bosgarren Erakustaldian parte hartuko du igande honetan. Lizarrako Udalak antolatu Jazz Jaialdiko bigarren kontzertua izanen da berak eskainiko duena. Gainontzeak bezala, Los Llanos pasealekuan izanen da —Kontserbatorioan eguraldiak laguntzen ez badu—, gaueko hamarretatik aurrera.

Aurtengo erakustaldiko egitaraua, baina, bihar bertan zabalduko da Lizarran. Bi taldek hartuko dute parte. Lehenik eta behin, Olimpia Jazz Band talde nafarrak herriko kaleetan barrena erakutsiko du bere musika, arratsaldeko zortziak eta gaueko hamarretatik aurrera. Iruñeko kaleetan, 20ko hamarkada era ikusizunaren eskutik ikusi ahal izan genituen joan den maiatzean. Talde honen emanaldia amaituta, Lizarrako Fernando Sanchez Jazz Quartet taldeak hartuko du lekukoa. Fernando Sanchez, Victor Sanchez, Cochán Martínez



Jazz Gaztearen Erakustaldian parte hartuko du Pedro Iturraldek.

ARTXIBOKOA

eta Michel Remon musikariak dira 1994. urtean sortutako talde honetako partaide.

Fernando Sanchezek, hain zuzen, jazz entzuleengana hurbiltzea dela euren asmoa azaldu zuen jaialdiaren aurkezpenean. Halaber, bertako eta kanpoko taldeak elkarrekin egotea garrantzitsua dela azpimarratu zuen.

Larunbateko kontzertuen ondoren, Pedro Iturralde saxo jole ospetsua izanen da protagonista igandean, Jazz Time Quartet orkestrarekin batera. Talde hau ere nafarra da, eta Ramon Garcia, Juan Antonio Mañas, Victor Sanchez eta Cochán Martínezek osatzen dute.

Uztailearen 1ean amaituko da aurtengo jazz jaialdia, Cinco ¿y que? taldearekin. Juanjo Arrom, Rafael Miguel Jenks, Quino Bejar, Vicenc Soler, Ignasi Zamora eta Raul Fuentes dira horretako partaide.

Aurreko urteetan ez bezala, beraz, ekaina eta uztaile bitartean ospatuko dute aurtengo erakustaldia. Aurrekoetan, hain zuzen, urteko azken hiruhilabetea aukeratu dute Lizarrako Udaleko Gazteria Batzordeko kideek jaialdia antolatzeko. Aldaketa honen bidez, hilabete hauetako eguraldi ona aprobetxatu nahi dute antolatzaileek, baita jazz kalera atera ahal izateko ere. Asmo hau, hain zuzen, aspaldikoa da Lizarrako Udalean, baina orain arte ezin izan dute egia bihurtu.

Erakustaldiak, baina, gero eta arrakasta handiagoa lortu du urtetik urtera, eta horrek egitaraua zabaltzen lagundu du. Aurreko lau urteetan bezala, beraz, jazzaren zale guztiek Lizarran dute datozen egunetan topaleku musika honetaz gozatzeko. X

## Burlata

## Jai kartelen lehiaketa antolatu du Udalak

■ Uztailearen 15ean bukatuko da lanak aurkezteko epea

Erredakzioa / Iruñea

JAI KARTELEN LEHIAKETA antolatu du Burlatako Udalak. Hiru kategoria izanen dira, hamaika eta hamalau urte bitartekoentzat lehenengoa, hamabost eta hemezortzi bitartekoentzat bigarrena, eta hemezortzitik gorakoentzat hirugarrena. Gazteen artean irabazten duenak 20.000 pezeta saria eskuratuko du, 35.000 bigarren kategoriako irabazleak eta 100.000 hirugarrenenak.

Lanak Burlatako Kultur eta Jaien Patronatuan aurkeztu behar dira, uztailearen 15a baino lehen. Epaimahaiari dagokionez, alkateak, Patronatuko lehendakariordeak, zinegotzi batek eta Arte Ederretako hiru lizentziatuk osatuko dute. Epaimahaiko kideek uztailearen 31n jakinaraziko dute euren erabakia. Sariak, berriz, abuztuaren 14an banatuko dituzte, eguerdiko hamabi eta erdietan eginen duten ekitaldi baten. X

## Iruñea

## Umeentzako euskara tailerrak antolatu dituzte IPES eta Giroak

■ Abuztuaren 1etik 30era bitartean izanen dira

Erredakzioa / Iruñea

IPES eta Giroa Elkarteko kideek umeentzako euskara tailerrak antolatu dituzte abuzturako. Ekimen honek hamar urte beteko ditu aurtentzen. Tailerron bidez helburu garbia dute antolatzaileek, bai euskara eta kulturari dagokionez, baita giza garapenera dagokionez ere. Euskara eta kulturaren ildotik, euskara komunikazio tresna bihurtu, euskara maila sendotu, euskal kultura ikasgelatik kanpo atera eta Iruñea eza gutzea dira lortu nahi dituzten xedek, eta giza garapenera ildotik, berriz, haurrak talde bateko partaide sentitzea, elkarrekin jolasten ikastea eta trebetasun fisikoak eta autonomia lantzea.

Tailerretan parte hartu nahi duten haurrek hil osorako edo hamabost egunerako bakkarik eman dezakete izena. Tailerrak, halaber, goizez izanen dira. Euskaraz hitz egiteko aukera ezezik, lagun berriak egiteko ere izanen dute haurrek bertan, tailerrak egin diren aurreko urteetan bezala. X

## Izaba

## Almadiak bat jarriko dute herrian turistentzat

■ Ibilbide turistiko baten abiapuntua izanen da

Fernando Hualde / Izaba

IZABAKO UDALAK, aurki, bertako turismoa egituratu eta bideratzeko turismo bulego propioa izanen du, eta hori dela eta bere produktu edo eskaintza turistiko propioa ere sortu nahi izan du erakunde honek. Angel Luis de Miguel herriko alkatearen hitzetan, «aisialdia, kirola eta natura batuko dituen alternatiba izanen da» aipatu produktua.

Izabako Udalak aurreikusitako helburuen artean, hain zuzen ere, herrian zehar eginen den ibilbide turistiko prestatzeko ari dira egunotan bertako ardura-

dunak. Bertako gidari baten laguntzaz, Izabako historia, arkitektura eta etnografiari buruzko gertakizun eta bitxikeriak ezagutu ahal izanen ditu bisitariak. Osotara, hamalau puntuko ibilbidea prestatuko du Udalak. Besteak beste, ardidibideen historia, basogintza edo herriko historia eta pertsonaiak ezagutu ahal izanen dira. Pertsonaien artean, azpimarratzekoak dira Abderramen errege mairua, Zipriano Baraze misiolari jesuita eta martiria, edo Angel Gale, hain zuzen ere mende honen hasieran Izabako turismoaren bultzatzaile handia izandakoa. X

## Corella

## Udalak jota lehiaketa antolatu du aurten ere

■ Bederatzigarren ekitaldia irailean izanen da

Erredakzioa / Iruñea

CORELLAKO UDALAK Nafarroako Jota Lehiaketa parte hartzeko deialdia zabaldu du dagoeneko. Aurtengoa bederatzigarren ekitaldia izanen da eta irailean zehar egingo da. Zehazki, hilaren 22an kanporaketak eginen dituzte eta, 23an finalak. Hamalau urtetik gorako abeslariak hartu ahal izanen dute parte, eta Nafarroako jotaren edozein estilo aukeratu dezakete lehiaketarako. Txapelketa honen helburua, nolabait ere, Nafarroako jotaren interpretazioa neurtzea izanen da.

Jota kantariek banaka edo bi-

naka hartu ahal izanen dute parte. Kanporaketari dagokionez, jota mota bakoitzeko bost finalista aukeratu dituzte. Irailaren 22an eginen dute, Corellako Foruen plazan, arratsaldeko zortzietatik aurrera. Finalari dagokionez, berriz, aurreko egunean sailkatutakoak lehiatuko dira irailaren 23an, leku eta ordu berean.

Lehiaketaren bi zati hauetan abeslariak derrigorrezko jota bat abestu beharko dute eta beste bat eurek aukeratu. Halaber, Nafarroako jantzia jarri beharko dute derrigorrez. Bai banaka bai binaka, hiru sari banatuko dituzte epaimahaiko kideek. X



Otsoaren eta hartzaren  
aztarnak Nafarroan

**O**tsoak itzuli ote dira Nafarroara? Azken asteetan Urbasa, Aralar eta Lerinen izandako erasoen ondoren, hala dela dirudi. 25 bat ardi hil dituzte Nafarroan, beste hainbeste Gipuzkoan. Nafarroako Ingurugiro Sailak, hala ere, ez du oraindik otsoak izan direla ziurtatzeko froga ziurrik aurkitu. Dena den, aspaldiko beldurrak piztu egin dira berriro gure herrialdeko artzainen artean. Nafarroa inguruko lurraldeetan gero eta otso gehiago dago eta hori izan daiteke Nafarroara etortzeko arrazoia. Azkenekoz 1981. urtean izan zen otso bat gurean, eta bost tiroz hil zuten.



Hartza Berreskuratzeko Plana astelehenean onartuko dute ziurrenik.  
FERNANDO HUALDE

## Otsoak itzuli ote dira?

*Urbasa, Aralar eta Lerin inguruetan erasoak jasan dituzte artaldeek azken aste hauetan*

Edurne Elizondo / Iruñea

APIRILAREN bukaeratik erne dira Nafarroako artzainak. Urbasan lehendabiziko, Aralarren gero, eta azkenekoz Lerin aldean ikusi dituzte. Otsoak itzuli dira Nafarroara. Bi ikusi omen dituzte Urbasan, bakarra Lerinen. Ardiak beldur dira, baita hauen jabeak ere. Hamabost urte igaro dira Nafarroan otso batek azken ardia hil zuenetik. Berea izan zen eremura itzuli ote da otsoa?

Hamaika erantzun dituen galdera dugu hau oraingoz. Lehenik eta behin, nahiz eta otsoez hitz egin —artzainak ziur dira hala direla—, Ingurugiro Saileko arduradunek ez dute oraindik ziurtatu. Froga erabakigarria aurkitzeke dago orain artean; beraz, otsoak, zakurrak edo bien arteko hibridoak izan daitezke artzainek ikusitakoak.

Bigarrenik, otsoak badira, ekologistak eta Ingurugiro Saileko kideak bat datoz auzi batean: gazteak dira eta oraindik ez dute bizitzeko lurralderik aukeratu. Lan horretan dabilta eta horregatik mugitzen dira hainbeste. Egia erran, Nafarroan ez dute leku atsegina aurkitu. Tiroz-egin diete harrera artzainek. Hori dela eta, baliteke hemen ez gelditzea.

Dena dela, otsoen lurraldea izan zen Nafarroa garai batean, eta, beste hainbat lekutan gertatzen ari den bezala, baliteke egun batean galdu zutena berreskuratzera etorri izana. Hala bada, gauza asko hartu beharko da kontuan hemendik aurrera.

### Gero eta otso gehiago Duerotik gora

• Azken hilabeteetan hartzak piztu du Erronkariko artzainen haserre, animalia hauek berreskuratzeko Nafarroako Gobernuak egindako plana zela eta. Otsoak azken asteetan sortutakoaren ondoan, baina, ezer gutxi da. Otsoa etsaia da artzainarentzat. Eragiten dituen kalteak, izan ere, ez dira makalak. Bada alde horretatik ezberdintasunik hartza eta otsoaren artean. «Hartzak jateko hiltzen du, hau da, behar duena, besterik ez. Otsoak, berriz, ahal duena hiltzen du. Ardi bakarra jateko hamabost edo hogeit hil ditzake». Halaaxe azaldu digu Fernando Hualde FIEP-Group Ours-Pyrennes-eko (Pirinioetako Ekosistemari Bu-

ruzko Informazio Fondoa-Pirinioetako Hartz Taldea) kideak. «Ardiak hil edo zauritu ezezik, gainera, esnea moztu edo umea galarazi egiten diete otsoek ardiei, erabat izutu egiten dituzte». Eztabaida piztuta dago.

Zango luzeak, buru handi eta zabala, buztana laburra eta eroria. Taldeka bizi da eta kideen arteko harremana erabat hierarkikoa da. «Taldeko buruak agintzen duena besterik ez dute egiten gainontzeko kideek». Ehiztari prestua da gainera eta ehiza egitea biziki maite du otsoak. Horiek dira otsoaren ezaugarri bakan batzuk. Duela mende bat, Nafarroa osoan hedatua zegoen. Toponimian ere ugari dira animalia honen presentzia agerian uzten duten aztarnak. Mende honetan zehar, baina, noizbehinka baino ez dugu ikusi otsoa Nafarroan. 1922. urtean, Leon Aranburu ehiztariak hil zuen Urbasa, Andia eta Aralarako artzain eta ardiak

hamalau urtez izutu zituen Aldabidia otso mitikoa. 1962an, berriz, Miguel Rodriguezen eskopetak hil zuen otso bat Lerinen. Azkenekoz, 1981. urteko ekainaren 3an izan zen otsoa Nafarroan. Jose Luis Garmendiak hil zuen hura bost tiroz.

Otsoaren egoerari buruz mintzatzerakoan bi zati banatu behar dira Iberiako Penintsulan, Europako 92/43 araudiari so eginez. Duero ibaitik beherako aldean, desagertzeko zorian dago eta estuki babesten du Administrazioak. Duerotik gora, berriz, otsoaren egoera bestelakoa da. «Gehituz doan populazio egonkorra dago eta berau arautzeko hainbat neurri onartzen da», azaltzen du Juan Carlos Bascones-ek, Nafarroako Gobernuko Natur Baliabideak Antolatze Zerbizuko zuzendariak.

Nafarroa inguruko lurraldeetan, Aragoi, Logroño, Burgos eta Araban, hain zuzen, azken hau da otsoaren egoera. Hau da, populazio iraunkorra dago eta handituz doa. Hori izan daiteke ustetako otsoak Urbasa, Aralar

eta Lerinen agertzeko arrazoia. «Otso gazteak dira eta lurralde berrien bila abiatu dira Nafarroarantz». Hurbiltasunagatik, litekeena da Burgos edo Araba aldetik etorri izana. Horrek ez du erran nahi, hala ere, otsoak Nafarroan geldituko direnik. «Bere lurraldea finkatu arte leku askotatik igaro daiteke otsoa lehena».

Gelditzea erabakitzen badute, bestalde, Nafarroa otsoak berriro hartzeko prest dagoen edo ez ere kontuan hartu beharreko auzia da. Urbasa eta Aralarren, adibidez, ez dago otsoarentzat lekunik Ingurugiro Saileko arduradunen ustetan. Izan ere, animalia hauek utzitako lekua abeltzainek bete edo hartu baitute. Hori dela eta, noski, egokiena otsoa populaziorik eta abererik gabeko zonaldeetan hedatzea izanen litzateke. «Otsoak, baina, ez ditu mugak ezagutzen eta baliteke gure herrialdera etortzea erabaki izana», azpimarratzen du Fernando Hualdek.

Juan Carlos Basconesek gogoratzen duenez, baina, «bizi baldintzarik errazena bilatzen ditu beti otsoak, beraz pentsatzekeoa da ez dela hemen geldituko, artzaina izanen baitu beti aurrean». Penintsulako beste

Fernando Hualde: «Urbasa edo Aralar bezalako leku batean zaila da otsoa eta artzaina elkarrekin bizitzea»



Otsoaren eta hartzaren  
aztarnak Nafarroan

Ingurugiro Saileko arduradunen ustez goiz da otsoa itzuli dela errateko.

ARTXIBOKOA

hainbat lekutan gertatzen ari denari so eginez, Fernando Hualdek dioenez populaziorik eta abererik gabeko zonaldeak bilatzen ari da otsoa. Horietan, gainera, presio zinegetikoa txikiagoa denez, baurde, azeri eta bestelakoak jenez bizitzeko aukera du otsoak. Nafarroa inguruan dauden otso populazioei dagokienez, Pirinioetako lurraldeak izan daitezke euren hedatze prozesuan bila ditzaketenak Basconesek nabarmentzen duenez, Aragoi Garaikoak batez ere. Nafarroa, beraz, halakoak bilatzeko bidean behin behineko etxea izan daiteke otsoentzat.

Ustezko otsoak berriro Nafarroan agertu izanak, dena den, aspaldiko beldurrak piztu ditu berriro ere. Urbasa, Aralar eta Lerinen eragin dituzten kalteak, gainera, ez dira makalak izan. 25 bat ardi hil dituzte Nafarroan eta beste hainbeste Gipuzkoan. Hori dela eta, «babesteko baimena» eman die Nafarroako Gobernuo Ingurugiro Sailak artzainei, Urbasakoei lehendabiziko eta Leringoei ondoren, halaxe aurreikusen baita otso populazio iraunkorra dagoen lekuetarako Europako araudiak. Horren arabera, otsoaren zain gelditu eta berau hiltzeko baimena ere badute artzainek. Ilunabarreko orduak omen dira horretarako hoberenak.

«Goiz da otsoa Nafarroara itzuli dela errateko» • Erabaki honek, hala ere, sortu du aurkako iritzirik ere. Lur-Adiskideen Nafar Elkartearen (LANE) irudiko, hain zuzen, presazkoa izan da: «Penintsulan eta Europa osoan gertatzen ari den moduan, otsoa antzina galdutako eremuak berreskuratzen ari da. Gure uste-

**Juan Carlos Bascones:**  
«Bizi baldintzarik errazena bilatzen ditu otsoak; beraz, pentsatzekoa da ez dela hemen geldituko»

tan otsoa eta azienda bateragarriak dira. Jakina, plan baten bidez jakin behar da non bizi daitezkeen aziendari kalte gehiegi egin gabe eta galera hauek izatekotan zenbatekoak izanen diren eta beharrezko indemnitzazioak eman».

Fernando Hualdek ere otsoaren eskubideak ez direla ahaztu behar azpimarratu nahi izan du. Hala ere, «egia da Urbasa edo Aralar bezalako leku batean zaila dela otsoa eta artzaina elkarrekin bizitzea. Hartza eta artzainaren arteko harremanak zailak badira, are zailagoak otsoa eta artzainaren artekoak. Izan ere, lotsaga-

beagoa da otsoa eta taldeka mugitzen da. Beraz, larriagoak izaten dira ardiaren artean eragiten dituzten kalteak. Hartza, aldiz, bakarrik ibiltzen da eta jan behar duen ardia baino ez du hartzen».

Juan Carlos Basconesen usteetan, baina, halako plana egiteak ez du zentzu handirik, «otsoak, berez, beretzat egokiagoak diren lurraldeetara jotzen baitu. Goiz da oraindik otsoak Nafarroara itzuli direla errateko. Gure herrialdea behin-behineko etxea da otsoentzat. Azken urteetan ikusi denez, hain zuzen, noizbehinka baino ez da etortzen Nafarroara».

**LANE:** «Iberiko Penintsulan eta Europa osoan gertatzen ari den moduan, otsoa antzina galdutako eremuak berreskuratzen ari da»



Aurten hartzaren aztarna ugari aurkitu dute Erronkariko mendietan.

FERNANDO HUALDE

Gaur egun, beraz, Nafarroa behin-betiko etxearen bila otsoak zeharkatzen duen lurraldea da. Noizbait itzuliko denik, hala ere, ez dute adituek baztertzen. Hori gertatzen bada, argi dago Urbasa edo Aralar bezalako lekuetan —abere dentsitate handiko zonaldeak— ez duela lekurik izanen. Artzainek ez dute otsoa nahi

eta Ingurugiro Saileko arduradunek ere aukera hori baztertzen dute. Otsoa Urbasa eta Aralartik botatzeko neurriak eraginkorrak izan dira oraingoan. Lerin aldean ere, ez da beste erasorik gertatu. Isilik dira otsoak. Agian Nafarroatik atera dira, agian ez. Agian Nafarroara itzuliko dira, agian ez. Denborak erranen.

**Fernando Hualde:** «Nire ustez otso gazteak dira eta seguruenik ere, lurralde berrien bila abiatu dira Nafarroako mendietarantz»

## Nafarroan dago hartza

NAFARROAKO GOBERNUAK astelehenean onartuko du ziurrenik Hartz Arrea Berreskuratze Plan. Gobernuak aurkeztu zuen une bereetik polemika piztu zuen aipatu plana Erronkariko bailaran, Larra Erreserba Naturalean, Aztaparreta Erreserba Integralean, Urralegin eta Izaba eta Uztarroze aldean, jarriko baitute, hain zuzen, martxan.

Hasierako haserreak elkarriketarako bidea zabaldu zuen, hala ere, ondoren. Nafarroako Gobernuaren eta Erronkariko Bailarako erakunde eta talde ezberdinen artean, hain zuzen, lan batzordeak osatu eta Hartz Arrea Berreskuratze Plan zehazten hasi ziren. Batzorde hauetan hitzartutakoa da astelehenean • Gobernuak onartuko

duen planak jaso duena.

Lan batzordeetan egon ez dena Izaba izan da, planak gehien ukitzen duen zonaldea, zehazki. Izabako Udalak, are gehiago, auzitara eramatu du Hartz Berreskuratze Plan, eta bere asmoa hartz arrea Nafarroan desagertutzat jotzea da. Ez da hori, antza, lan erraza izanen, horretarako urteak igaro behar baitira animalien aztarnarik aurkitu gabe. Ez da hori hartz arreararen kasua Nafarroan, Nafarroako Gobernuo teknikariek eta baita FIEP taldekoek ere aurkitu baitituzte hartzaren arrastoak berriki.

Ido berean, Juan Carlos Bascones Nafarroako Gobernuo Ingurugiro Saileko Natur Baliabideak Saillkatze Zerbitzuko zuzendariak aipa-

tzen duenez, «Izaba kontrastean erortzen da, hartza desagertutzat jotzen badugu hartza berriro ekartzeko plana jarri behar baita martxan. Izaba, dirudenez, ez da horretaz konturatu».

Hartzaren aztarnak azken hilabeteetan aurkitu ezezik, Fernando Hualde FIEPeko kideak azaldu digunez, «Erronkarin da hartza» une honetan. Gure herrialdera etortzen den hau, hain zuzen, Nafarroa eta Aragoiko Anso bailara bitartean bizi da. Azken aldian, baina, «denbora luze egon da Nafarroan. Aragoi bizi eta Nafarroara noizbehinka etortzen zela uste genuen, baina dirudenez, alderantziz gertatzen ari da, gero eta denbora gehiago ematen du Nafarroan». Hartza arra da ziurrenik eta «heldua, oso

heldua». Zaharra izan arren, baina, «txikia da. Izugarria da hartzak dauden ingurunera nola egokitzen diren ikustea. Bizi baldintza gogorren ondorioz dira hemengo hartzak txikiak. Nafarroan dagoena, gainera, bere adinean eginen ez lituzkeen gauzak egitera behartua dago bizirik irauteko».

Baieztape honek badi-tu, hala ere, hainbat nabardura Hualdek aipatzen duenez, «ezin baitugu ahaztu gaur egun hartzaren aztarnak aurkitzeko baliabide gehiago eta hobeak ditugula. Beraz, gerta daiteke lehen hainbat gauzak ohartu ez izana». Juan Carlos Bascones ere iritzi berekoa da.

Nafarroan ezezik, Pirinioetako beste hainbat lurraldetan ere piztu du

eztabaida hartzaren presentziak. Azkenekoz, Katalunian, Life Europako programaren bidez Esloveniako bi hartz eme sartu baitituzte Iparraldean. Hartz hauei mikrotxipa jarri diete euren mugimenduak jarraitu ahal izateko. Esperientzia ongi ateratzen bada eta hemengo ekosistemara ongi egokitzen badira, hartz gehiago sartuko dituzte.

Biarno Garaian, bestalde, jada urte eta erdiko hartza da 1995. urteko urtarrilan jaiotakoa. «Dirudenez ongi hazten ari da eta ez du arazorik izan». Hartz honen inguruan, hain zuzen, mugimendu oso bat sortu da Hualdek azaltzen duenez. «Ehiztari, artzain eta gaitzako erakunde guztiak ados jarri eta hartza lasai bizi eta hazteko ahalleginak egiten ari dira». X



## Xanti Begiristain

## Hego haizea eta Ipar haizea

■ Noizbait oinez ibili izan garenok eta orain gurrupil-aulkiz mugitzera *kondenatuak* gaudenok oso ongi dakigu zer den hego haizea eta ipar haizea. Hagitz ondo bereizten ditugu beroa eta hotza. Arrunt eskarmentu handi eta luzea dugu arropa asko jazarreaz, batez ere, ni bezalako meheak garenok. Ni, esate baterako, hezur eta azala baino ez naiz. Hola bada, ia-ia urte osoan zehar ibili behar izaten dugu arropa mordo batekin, ez neguan bakarrik, baizik eta baita udaberri eta udazkenaren gehienean ere. Eta udan, gezurra irudi balezake ere, sinetsi behar didazue, erdian baino gehiago erabili behar izaten dugula jantzi pila handia. Laburbilduz esan nezake, urte osoan zehar dozena bat egunetan baino ezin garela ibili lasai eta patxadaz arropa arin eta gutxirekin.

Hori dela eta, gehienetan jantzi behar izaten ditugu bi pare galtzerdi lodi, pare bat kamiseta, poloa, jertse lodia, zamarra sendoa, eskularru onak, eta hori guztia gutxi balitz, oraindik belau-netan sarritan jarri behar izaten ditugu berogarri batzuk.

Bestalde, bai etxean nola lantokian ere, maiz paratu behar izaten ditugu haize-berogailu osagarriak eta erresistentzia elektriko batzuk lurrean oinak berotzeko. Ikus daitekeenez, oso konplikatuak gara, hornidura konplexua behar izaten dugu benetan.

Gure beste *etsai* ugari batzuk izaten dira fisikoki pertsona arruntak direnak, batez ere, berotsuak, eta baita tabako erretzaileak ere. Zergatik? Erantzuna oso erraza da, hots, berotsuak direnek irkitzen dizkigute ateak, leihoak eta abar, beraiek horrela ongi daudelako. Orduan gu hoztu egiten

gara. Eta tabako erretzaileen kasuan, lehendabizi jartzen dute giroan egundoko fafara kearen bidez, eta jarraian irekitzen dizkigute leiho eta ateak gelak egurasteko. Horrela kalte bikoitza egite digute: lehenik eta behin zikintzen digute airea, eta jarraian hozten digute giroa, horrek dakartzan ondorio guztiekin. Horregatik, askotan, mila aldiz errazago gertatzen zaigu bakarka ongi moldatzea geure trikimailuekin edozein pertsonarekin baino. Beste horrenbeste gertatu ohi zaigu leku eta lokal publikoetan, baina zer egingo diogu ba?

Gogoan harturik, hemen, Iruñean, Nafarroan edota Euskal Herriko edozein lekutan gutxitan nagusitzen dela hego haizea, bada, guri, gurrupildun aulki erabiltzaileoi gutxitan egokitzen zaigu eguraldi beroaz gozatzea, eta askotan, aldiz, hotzaz edota hozkiriaz pairatzea, bai baitakigu latitude hauetan zeinen erraz sartzen duen ipar haizea. Grafikoago esanda, zera azaldu beharko nuke, alegia, soil-soilik fisikoki ongi dauden pertsonak beroak leheritzen ari direnean, orduantxe bakarrik ibil gaitzeko gu gustura arropa gutxirekin, baina txit ongi dakizunez gure herri honetan, gutxi-gutxitan ematen digu neurri horretako gozamina.

Aldiz, sarri-askotan entzun behar izaten diogu jendeari honako hau: «No! ipar haizetxo honekin primeran ibiltzen da, ez da hala?»; edota, «Kontxo! eguraldi osasungarria dugu gaur!» (hozkirria, alegia). Jende gehienak ulertzen ez gaituelakoan nago; gehienetan azalpenak emateko gogoia ere joan egiten zait.

Irakurle, hau irakurri ondoren hobekixeago konprenitzen bagaituzu gogotik poztuko gara. ■



## Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Emaztekien segida V:  
Mujika Egaña Tene

■ Deban 1888.eko maiatzaren 24an sortu zen Robustiana Mujika Egaña idazle gisa ospea erdietsu bazuen 36.eko gerratea aitzinetik, *Euzkadi*, *Argia*, *Gure herria* edota *Jaungoiko-zale* bezalako argitarapenetan agertu antzerti, olerki edo ipuin goxoen bidez. Sendiaren dendan aritu zen lanean, eta txolarte bakanetan baizik soilik izkiritzen zuen arren sariketa frangotan gailendu zen.

Argira elki zuen lehendabiziko liburua *Miren Itziar'i idazkiak eta olerkiak* izenburuduna genuen. Zornotzako Jaungoiko-Zalere-nean, 1923. urtean, Euskaltzale Bazkuna izeneko elkarteak saritu 126 orrialdetako lana. Idazlan aberkoiak dira, hemeretzi gutun eta 23 olerki osotara. «Zuri Itziar'ko Ama Neskutza maite orri opaltzen ditzut nere lendabiziko idazki au. Ar zazu maitez eta onetsi euzkeldun emakume artean, Jel-aldez emaitz ederrak bildu ditzan». Eskutitzetan emakume abertzaleen eginkizunak plazaratzen zituen, eta olerkiak natura eta Euskal Herriko edertasunari eskainiak dira: «Ez berton billatzen ibilli elertaren bikaintasunik, ezta jakintza sakon baten irakatsirik, ezta ere gogoepantsuen gorargirik, ezer orrelakroik ez dezute arkituko ta. Bakar bakarrik billakatu Aberria maite duan biotz baten naimen ona, bertan arkituko dezuten guztia onexek arazia da ta». Bereziki kezkatzen zuen euskararen egoerak bai eta emakumeak hartan zezakeen artak: «Bere umetxiak euzkeldun eta euzkeltzale azi, ara emen emakume abertzalearen egiteko garrantzi aundidun bat, eta euzkera alde eragidoen aundidun bat». Olerkiak ere xalu eta artez tajutuak daude, eta bere garaian erabat arrakastatsu suertatu bide ziren, Watson Kirkconnellek 1928.ean Otawan argitara eman zuen *European Elegies* izenburuko bildumarako hautatu Teneren *Udazken-ala* izeneko bertsoa lekuko.

Olerki bezala doi batez ezagutzeko Onaindiaren *Mila euskal olerki eder* bilduman Teneren sei bertso daude irakurgai: *Ama Muxua*, *Ikazkin Lilluratu*, *Gogo-negarra*, *Arnoko kurutza* eta *Neskuts minduari*.

Sifutegietan sartu zuen bigarren lana *Gogo oñazeak* izenburukoa dugu, Tolosan, 1934.ean, Lopez-Mendizabaldarrenean. Hiru ekitalditako antzertilan honekin, *Antzerti aldizkariak* ber hirian antolatu II. Antzerki Sariketan lehenengo saria hatzeman zuen Debakoak, 250 laurleko eta aldizkariaren orrietan argitarapena, 34, 35 eta 36 zenbakietan alegia. Epaimahaikoek begi onez hartu zuten lan hau. «lan txukun eta ederra, gertaera egokiak etaesakera egikerak areago, ongi, mamiz, eta jozkeraz; lenen atalean ez lituzke gaizki. baño, zenbait laburtu-aldi ta orrazte; euskal antzerti barrutian aurrera dionetakoa da antzerki txalogarri auxe», eta behin baino gehiagotan antzertua izan da. Sariketa berean, bakarriketa, haur-jolas, edo antzeko lantxoan sailean 76 laurleko saria eskuratu zuen *Gabon umientzat antzerkitxoa* ekitalde bateko lanarekin. *Antzerti aldizkariaren* 46. zenbakian eta lan soil bezala 1935.ean Tolosako apatu argitaletxean ageri zena: «Tajuzkoa, bai gitez, bai iraute-neurriz, eta bai ikasbidez. Euskera polit-errez». 1936.eko apirilaren Asamblea Mariana Diocesana delakoak Oñatin antolatu literatur sariketa irabazi zuen, antzerki sailean, *Juan Joxe* izeneko hiru ataletako bakar hizketarekin. On Mateo Mujika Gasteizko apezpikuak berak eman zion saria, baina gerratearekin, argitaratzeko asmoak bertan behera geratu ziren, eta apezpiku berria izendatzearen kariaz, Tenaren idazkia, beste gauza asko bezala, desagertu zen. Gerratearekin Iparraldera jo behar izan zuen —ez ahantz Gipuzkoako Emakume Abertzale Batzako lehendakaria izan zela 1935.etik—. Gerreroastean hainbat artikulu eta ipuin idatzi zituen Debako jaien programetan, horre zgain, la ezer gutxi gehiago laga zigun berria, ezpada 1964.ean Txomin Agirrerren mendeurrena ospatzeko aitzakiz Ondarroan egin zen literatur lehiaketan aurkeztu nekazari bizitzari buruzko lana, 1. go saria eskuratu zuena. 1968.ean *Cuadernos de vascuence hablado* izenburukoa agertu zuen Zarautzen, seme-alabak ikastoletara ematen zituzten gurasoen esku liburua. 1975.ean, emakumearen nazioarteko urtea zela bide, euskaltzain ohorezko izendatu zuten Azpeltia eta Jauregiberrirekin batera, eta 1981.eko irailaren 16an zendu zen bere betiko herrian. ■



Iruñeko Hiria xake torneo itxiko laugarren jardunaldiko partida, 1995eko abenduaren 30ean jokatu. **Vadim Zvjaginsev** (Errusia), 2.600 ELOkoa — **Jordi Magem** (Katalunia), 2.560 ELOkoa.

1.Zf3,d5; 2.e3,Zf6; 3.c4,c4; 4.Ac4,e6; 5.0-0,c5; 6.De2,a6; 7.Ab3,Zc6; 8.Gd1,Ae7; 9.d4,d4; 10.d4,0-0; 11.Zc3,Za5; 12.Ac2,b5; 13.a4,b4; 14.Ze4,Ab7; 15.Zc5,Ad5; 16.Ze5,Ga7.

Ez dugu asmatzen zein den mugimendu honen helburua. Jokaldi bitxi samarra.

17.Ag5,g6; 18.De1,Zc6; 19.Ab3. Trukeen dantza hasiko da. 19.....Zd4; 20.Af6,Zb3; 21.Ae7,De7; 22.Zb3,Ab3;

23.Zc6.

**Ikus koadroa.** Peoi txuriak hobeto gera daitezkeen arren, berdintasuna dagoela dirudi.

23.....Dc7.

Ez dakigu zergatik ez zuen 'Db7' egin.

24.dG-c1,Ad5.

'Zd4' jokaldia bazen, eta horregatik pieza galdu egin behar dute.

25.Za7,Da7; 26.Db4,Gb8; 27.Df4.

'Gc8' eta 'De5' mehatxuak dira.

27.....Db6; 28.b4.

Beltzek etsi egin zuten. Trukeen zurrumbiloen zoriabatu ziren eta partida bera bota.






# Noingo Bataila gogoratuz

Hitzaldi zikloa egin dute aste osoan zehar, eta igandean Getzen ospatuko dute urteurrena

**N**oingo Batailaren 475. urteurrena ospatzen da aurten. Hori dela eta, urtero bezala, Getze izanen da bataila gogoratzeko ekitaldien lekuko. Aste osoan zehar ere, gertakizun honen inguruan hitzaldi zikloa antolatu dute hainbat taldek. Joan den ostiralean hasi eta gaur amaituko da. Partehartzailerekin mintzatu gara euren ikuspuntua ezagutzeko asmoz.

Edurne Elizondo / Iruñea



Joxe Ulibarrenak Getzeko Mendiluzen jarri duen monumentua.

JOXE LACALLE

baki garrantzitsu hartzeko ordezkari nazionalaren aholkua behar zuen. Estatua Nafarroan, azken finean, ez da erregearen ondare, eta hori da garrantzitsuena.

Aste honetako lehen hitzaldia Eugenio Arraizak eskaini zuen astelehenean bertan. Gaztelak Nafarroa konkistatzeak izan dituen ondorioei buruz mintzatu da gurekin. Lehenengo ondorioa independentzia galtzea da, baina Arraizak azpimarratzen duenez, «hasieran ez zen ikusi galera bezala. Izan ere, Nafarroa nahiko banaturik egon zen azken 50 urte horietan, gatazka asko egon zen. Hori dela eta hasieran Espainiako Urrezko Mendean sartzea izan

zen». Arraizak nabarmentzen duen legez, baina, «literatura eta mistikan gelditu ginen. Diru iturriak ez ziren zaindu eta gainbhera etorri zen».

Horrekin batera hizkuntzaren galera aipatzen du Arraizak ondorioen artean. «Herri hizkuntzak garatzeko une berezia izan zen. Nahiz eta Lizarragak biblia itzuli, protestante kutsua zenez, ez zen erabili».

Azkenik, foruei dagokienez, nahiz eta berez ez debekatu, pixkanaka ezerezean gelditu zirela azaltzen du Eugenio Arraizak: «Madrilen oztopoak jartzen ziren eta hemengo korteak ere oso baldintzatuta zeuden».

Jose Luis Orellak asteartean eskaini zuen bere hitzaldia Lizarran. Bere solasaldiaren abiapuntutzat Nafarroako erresuma Santxo Handiaren garaian hartu zuen, «bera baita bere menpe euskaraz mintzatzen ziren lurralde guztiak izan zituen errege

defenditzen dute, eta bigarrenek, berriz, Gaztelarekin bat egitea. Historiografiari dagokionez ere banaketa bera gertatu da hasieratik: «Batzuek konkistaren legitimitatea defenditu dute, eta beste batzuek alderantzizkoa».

## Erriberrin eta Donibane-Garazin hitzaldiak gaur

Gregorio Monreal Eusko Ikaskuntzako buruak Nafarroa Gaztelako koroan sartzeak izan zituen alderdi juridikoak aztertu zituen atzo bere hitzaldian. Konkistari berari buruz mintzatzen hasi zen. «Erromako Aita Santuak ere parte hartu zuen. Entzikliken bidez Fernando Katolikoaren alde egin zuen». Nafarroa Gaztelan eta ez Aragoi-koroan sartu izanak, eranspen horren izaerak eta Gaztelako koroan egoteak Nafarroarentzat izan zituzten ondorioak aztertu zituen ere.

Beste alderdi bat jorratuko du gaur Tomas Urzainkik Erriberrin. Bere mintzaldiari buruz aurreratu digunez, Noingo Batailaren gaurkotatua da berak azpimarratu nahi duena. «Urte asko igaro dira, baina orduan gertatutakoak eragina du gaur egungo Nafarroaren nortasun politiko eta juridikoan, hau da, Nafarroaren egungo estatus politiko eta juridikoak konkistaren aurreko egoeran du oinarria, Nafarroa independente zen garaikoa».

Urzainkik, halaber, gertakizunak garaiko testuinguru historikoan kokatzea funtsezkotzat jotzen du. «XVI. mendean, Europako geopolitikaren barruan enfrontamendu handia dago indar konterbatazileen eta erreformaren edo modernitatearen aldeko indarren artean. «Enfrentamendu horren barruan galtzen du Nafarroa bere independentzia». Konkistari dagokiola, hain zuzen, «ez da lau eguneko kontua askok sinestarazi nahi diguten bezala. Prozesu luzea da».

Erreformaren eta kontraerreformaren arteko tira-birari dagokionez, bestalde, «Nafarroa subirano zenean eskubide indibidual eta kolektiboen alde zegoen argiro. Gaztelak bere menpe jartzen duenean, noski, kontraerreformaren eremuan barnerratzen da».

Gaur ere, baina Donibane-Garazin, Patxi Larrion eta Beatriz Leroik izanen dute mintzagai Noingo Bataila. Arratsaldeko zazpi eta erdietatik aurrera mahingurua egingen dute bertan. Solasaldia hasteko Nafarroako erresumak Erdi Aroan zuen egiturari buruz hainbat xehetasun azalduko ditu Beatriz Leroik, eta Patxi Larrion, berriz, Nafarroa Garaia eta Nafarroa Beherearen arteko zatiketaz mintzatu da. Halaber, Nafarroaren bi zatien artean mendeetan zehar egondako harremana aztertuko du. X

Eugenio Arraiza: «Gaztelak ez zituen foruak debekatu, baina pixkanaka ezerezean gelditu ziren»

Tomas Urzainki: «Nafarroaren egungo estatus politiko eta juridikoak konkistaren aurreko egoeran du oinarria»



◆Camino Paredes◆ Gustavo de Maeztu museoko zuzendaria

# «Benetako museo gutxi daude»

**D**uela bi aste Gustavo de Maezturen ome-  
nez ateratako liburua aur-  
keztu zen Lizarran, bere ize-  
na daraman museoan. Eki-  
taldia museoak berak bost  
urte betetzen zituen egu-  
nean egin zen, eta Camino  
Paredes bertako zuzenda-  
riaren lana goraiatu zuten  
bertaratu zirenek.

Alberto Barandiaran / Iruñea

BOST urte daramatza emakume  
honek Lizarrako museoaren zu-  
zendaritzan eta denbora honetan  
lortu du Iruñean eta baliabide as-  
koz gehiagorekin batzuek lortu ez  
dutena: planteamendu ausarta  
eta eraginkorra egitea, museoa  
zerbait bizia izan dadin.

■ Gustavo de Maeztu liburuaren  
aurkezpenean alkateak aipatu  
zuen museo ez zela egin lokal  
itxi bat izateko, baina zerbait  
eraginkorra eta bizia lortzeko.  
Zer da zuretzat museo eragin-  
korra?

Hain zuzen, borroka egitea oso  
zabalduta dagoen ideia horren  
kontra. Museoak ez dira lanak  
kontserbatzeko eta erakusteko  
tokiak, hautsaz beterikoak eta  
beldurgarri samarrak. Gure ideia  
zen museoak berak egin behar  
dituen beste gauza batzuk egitea.  
Hau da, museoaren bada ikerketa  
egiteko tokia ere, eta, batez ere,  
hezi eta bere balioa zabaltzeko  
tokia. Ez dugu nahi inguru itxi eta  
baztertuta, oso lotuta egon behar  
du dagoen tokiarekin, eta, kon-  
tuan harturik mende honetako  
artista garrantzitsu bati dedika-  
tutako museo delako, ebiteazina  
da gizartearekin nahi genuen  
konpromezu hori.

■ Hori guztia, praktikan, zer da?  
Adibidez, asko zaindu dugu he-  
ziketa. Nire ustez, artea, gozatu  
eta ikusteko gain, ikasi eta ulertu  
egin behar da. Artearen historia



Camino Paredes.  
DIARIO DE NOTICIAS

ikasteko ikastaro batzuk egin di-  
tugu, aurten laugarren urtez.  
Aurten ere Goyari buruz ikastaro  
bat egin dugu, eta beste bat ar-  
tearen modak duen garrantziaz.  
Azken finean, hurbildu nahi dugu  
arte mundu guztiarengana, hau  
da, ez dadila izan bakarrik uni-  
bertsitatearekin lotutako zerbait,  
eta izan dezala harreman handia-  
goa jendearekin. Dibulgazio  
handia ere egiten dugu, hilabe-  
tero antolatzen ditugulako hitzal-  
diak, liburuen aurkezpenak...  
Deiak egiten ditugu jendea maiz  
etor dadin museoaren artearekin  
ikastera edo gozatzera. Horretaz  
gain, erakusketa finkoak daude,  
jakina.

■ Horrek ez zaituzte hurbiltzen  
kultur etxe batera museo ba-  
tera baino areago?

Ez, biziki gordetzen ari da mu-  
seoaren izakera. Nik ez dut nahi  
kultur etxea izatea, inola ere ez.

Museoak oso gune konkretua  
dauka, artearena, eta, horretaz  
gain, artearen inguruan dagoen  
guztiak —literatura edo musika—  
ere badu lotura gune honekin.  
Hala ere, kontu handiz egiten di-  
tugu gauzak, eta ez dugu inoiz  
egin, kasurako, ekologiari buruz  
hitzaldi bat, ez duelako inolako  
zentzurik.

■ Zein da urte hauetatik geldit-  
zen zaizun inpresioa?

Gauza garrantzitsuak egin di-  
tugu. Uste dut museo nahiko  
errotuta dagoela hirian, ezagun  
samarra da Nafarroan, eta orain  
badauka erroka berri bat, ale-  
gia, Espainian ere tokitxo bat  
egitea. Orain jauzia egiteko etapa  
horretan gaude, Gustavo de  
Maeztuk izan dezan eduki behar  
duen maila.

■ Eta nola lortu nahi duzue ones-  
pen hori? Erakusketak truka-  
tzen, kanpoko bisitariak era-  
kartzen?

Museoak kanpoan izango du  
ospea Gustavo de Maeztuk da-  
gokion tokia hartzen duen egu-  
nean. Eta toki hori lortuko da  
egiten dugun lanari esker aintzat  
hartzen gaituztenean. Dagoeneko  
hasiak gara ateratzen Espainia  
osoan banatzen diren aldizkari-

tan, sartzen ari gara ibilbide ar-  
tistiko horietan, eta marka hori ez  
da lortzen hasieran, pixkanaka  
baizik.

■ Gero eta museo gehiago daude-  
la esaten ohi da.

Hori esaten da jendeak ez due-  
lako oso ongi ulertzen museo  
benetan zer den. Badira erakus-  
keta iraunkor asko, hau da, ba-  
linoa duten artelan batzuk eraku-  
tsi eta atek ireki eta itxi egiten  
dituzten toki asko, baina horiek  
ez dira museoak, bilduma  
iraunkorrek baizik. Museoek es-  
katzen dute beste lan mota bat,  
beste planteamendu bat, eta be-  
netako museo gutxi daude.

■ Nola antolatu daiteke museo  
bat Lizarran, non eta erabat  
zentralizatuta dagoen herrial-  
de batean?

Borroka asko eginda. Zuk esan  
duzunez, oso zentralizatuta dago  
dena, eta egiten ditugun gauza  
askok, nahiz eta oso interesgar-  
riak izan, ez dute merezi duten  
arreta jasotzen, jendea dagoelako  
beti Iruñera begira. Burua ate-  
ratzea entzun zaitzaten oso-oso  
zaila da batzuetan. Ekitaldi be-  
rak, Iruñean eginez gero, oihar-  
tzun askoz ere handiagoa izango  
luke. Bokazio handia behar da,

s o s l a i a

Gustavo de Maeztu, Euskal  
Herriaz gáindi, beste tokie-  
tan ere aintzat har dezaten  
lanean ari dira orain Lizarra-  
ko museoan, lehendabiziko  
urteeko azterketa  
gáinditu eta gero. Horre-  
tarako beren lana ahal  
bezain ongi egitea da  
duten erroka  
nagusia.

481 orrialde dituen Gus-  
tavo de Maeztu libu-  
riaren aurkezpenean ez  
zuen inolako oihartzu-  
nik izan museoaren bos-  
garren urteurrena bete-  
tzanak, oharkabean  
igaro baitzen data baita  
museoaren zuzendaria-  
rentzat ere.

150 bat lagun bildu zi-  
ren museoan aipatu  
aurkezpenean, eta ber-  
tan, besteak beste, Jose  
Luis Castejon Lizarrako  
alkateak, Railuca Ro-  
sales de Maeztu pintorearen  
ilobak, Pedro Salaberri pin-  
toreak, Jose Antonio Eslava  
eskultoreak, Pedro Mantero-  
la pintoreak eta Juan Ramon  
Corpasek hitz egin zuten.

eta maitasun handia egiten ari  
gareniko.

■ Duela gutxi kultur teknikariek  
jardunaldi bat antolatu zuten  
Nafarroan, euren lanaz solas  
egiteko. Esaten zutenez, he-  
rrietan lan egiteko malabarista,  
elektrikaria eta, batzuetan,  
atezain ere izan behar. Hori ere  
gertatzen da Gustavo de Maeztu  
museoan?

Bai, guk diruarekin dugu  
arantza. Oso aurrekontu urria  
daukagu, eta gaur egun dugun  
arazorik handiena ez da progra-  
mazioa osatzea, baina baliabi-  
deak lortzea programazio hori  
aurrera eramanez ahal izateko.  
Egiten dugunaren % 90 babes-  
leen bidez egiten dugu, eta nire  
baliabideak oso urriak dira. Nik  
badaukat kultur etxe batek baino  
askoz gutxiago, eta nire eginbe-  
harra da maila handiko progra-  
mazioak aurrera eramatea. X

«Museoak kanpoan izango du ospea Gustavo de  
Maeztuk dagokion tokia hartzen duen egunean. Eta hori  
lortuko da egiten dugun lanari esker aintzat hartzen  
gaituztenean»

## P A N E LUCRÁNDO

ZALDI ERØA

LIRIKAZ  
HONATAGO  
•18•

GAUR  
MEMORY

Yeats

Ederra zuen batzuk aurpegia,  
eta bi edo hiru graziosak ziren.

Baina ez zuten graziaz  
eta aurpegiak axolarik

mendiko belarrak

erbia etzanda egon deneko forma  
besterik ez bait dezake gorde.